

HISTORIA DE LA  
FILOSOFÍA MEDIEVAL

ERDI AROKO  
FILOSOFIAREN HISTORIA

Rafael Ramón Guerrero

Garazi Larrion Bert  
Erdi Aroko filosofiaren historia  
2018-2019

## ERDI AROKO FILOSOFIAREN HISTORIA

### **1. Kristautasuna eta filosofia**

Kristautasuna ez zen azaleratu pentsamendu filosofiko edo arrazional bezala, sinesmen sistema bat zen, eta egitate erlijioso gisa ulertu behar da. Bere oinarritzko doktrina asko judaismotik eratorriak dira, eta hauei bestelakoak gehitu zitzaizkien.

Mendeetan lortu zuen zabalpen izugarriaz, mundua ulertzeko ikuspuntu eta erantzun bihurtu zen; historiaren garapenean eragin izugarria izanez.

Kristautasunak dimentsio kultural bat osatu zuen, garrantzi filosofikoa izan duena; filosofia grekoko elementuak erabiliz Erdi Aroko pentsamendua baldintzatu zuen, gero sortuko zen filosofia ere baldintzatuz.

Kristautasunaren oinarria Nazareteko Jesusen aurreikuspenetan dago, *Ebanjelio* izeneko testuetan. Testu hauek filosofikoak ez izan arren, honen eragina nabaria da *logosari* eta jakinduriari buruzko aipamenetan esaterako, honen existentzia Jainkoari egotzen zaion arren. Azken finean, *Ebanjelioa* gizakiaren salbazio bezala aurkezten da; era unibertsal eta humanistan.

Kristautasuna *Ebanjelioaren* zabalpena dedikatu zen; baina zapalpen horretan bestelako elementuak gehitu zituen inguruak behartuta. Honen aurrean bi eskaera izan zituzten: batetik, une historikora egokitzea kristautasuna; bestetik, harremantze horrek errebelazio kristaua ez indargabetu eta desnaturalizatzea. Hori gertatu zen kristautasunaren helenizazioarekin.

Pablo Apostoleak ere gizakiaren eta jainkoaren jakintzaren artean desberdindu zuen. Kristautasuna jakintza jainkotiarra, sinismen gisa azaldu zuena; eta gizakiaren jakintza grekoek bilatzen zuten jakintza bezala deskribatu zuen. Pentsamendu paganoa eta jakintza gizatiarraren arteko harreman bateraezina aldarrikatzen zuen. Pabloren pentsamendua inspirazio iturri garrantzitsua izan zen gerora pentsamendu kristaua garatzeko.

Finean kristautasuna pentsamendu paganoa guztiz alboratu eta guztiz asimilatuta zutenen arteko oreka topatu zuen; polemika honen baitan kokatu behar da kristautasunaren doktrinaren ezartzea, eta kristautasunaren eta filosofia grekoaren arteko harremana.

Filosofia grekoa pentsamendu kristauaren alor intelektualenean txertatu zen, eta II. mendetik aurrera bereziki pentsamendu kristauan garrantzia hartu zuen.

Pentsamendu grekoaren, bereziki platonikoaren, ondorioz fedearen inguruko sistema doktrinal arrazionala garatzen hasi zen. Orokorrean esaten da filosofia eta kristautasunaren arteko harremana ez zela II. mende berantiarrean arte eman, aurretik Clemente Erromatarra autoreak honen eragina

duen arren.

150 urte inguruan Kristautasunetik kristauak ez zirenentzat bideratutako *apologetika* deituriko literatura garatzen hasi zen, oso aberatsa zena, eta filosofia grekoaren eragin nabarmena zuena. Nolabait kristautasuna filosofia grekoaren garapen gorena zela transmititu nahi zuten, arrazoiak eta *Logosa* Kriston zegoelarik.

*Epistola a Diogneto* apologiak, kristautasunak Erromako bizitza publikoan interesa pizten ari zela adierazten zuen. Idolatratzea eta erritualen inguruko ikuspuntu kritikoa du, eta pertsona kristauaren normaltasunari buruz idazten du, fedea eta honen inguruko ezagutza behar duena eta gainerako gizaki eta Jainkoarekiko maitasunean topatzen duelarik zorientasuna.

Justino Martirra izan zen lehena gnosi kristaua proposatu, eta filosofia grekoa eta kristautasunaren arteko harremanari buruz hitz egin zuena. Filosofia egiaren bilaketara bideratzen du, baina beti ere bere pentsamenduaren oinarria Jainkoan dagoelarik.

Kristautasuna zen filosofia gorena, gizakiaren galderak erantzuteko gai zelako, eta egiantz bideratzen zuela kontsideratzen zelako. Honen baitan Logos terminoa bere egiten dute, betiereko arrazoi gisa.

Honen bidea Alexandriako eskolak jarraitu zuen, Logos-aren inguruan ere hausnartzen jarraitu zuten. De origenes ere hemen kokatu behar da, filosofia eta kristautasunaren arteko harreman bide honetan, filosofia grekoaren garrantzia azpimarratuz, eta kristautasuna kokatuz pentsamendu goren gisa.

Agustinen bizitza egia, jakituria eta zorientasunaren bilaketa konstantea izan zen, prozesu honetan fedearen beharra azpimarratuz. Filosofia landua zuen, eta honen bidez egia ezagutu nahi zuen, zorientsu izatea helburu izanik, erlijioaren helburu bera. Berak horretarako bidea topatu nahi zuen.

Bere formakuntza garaietan besteak beste eszeptizismoarekin egin zuen topo, eta berak egiaren existentzia baieztatzen zuenez, honen aurka egin zuen, honek eragin handia izango zuelarik bere pentsamendua garatzerakoan. Batez ere, pertsonaren izate autonomia baieztatzen zuelako.

Ezagutzari dagokionez, arrazoiak soilik mundu ukigarrian dauden gauzak ezagutzea ahalbidetzen du, mundu adigarrikoa ordea ez, horregatik motz geratzen da. Hau garatzeak eta platonismoarekiko hurbilpenak, guztiz kristau bilakatu zuen Agustin. Horrela arima hasi zen lantzen, eta arimak egia ezagutu zezakeela baieztatzen zuen: Jainkoa, alegia. Hori dela eta, fedea bihurtzen da ezagutza tresna gorena, eta zorientsu izateko bidea; baina arrazoiaren garrantzia ukatu gabe.

Horrela kristautasuna, egia, jakituria eta zorientasunaren bilaketa ziren heinean, egiazko erlijioa izateaz gain, egiazko filosofia gisa onartu zuen. Horrela arrazoiak eta fedearen arteko harremana ezarri, biei garrantzia eman, baina fedea gailenduz.

Errealitatea ezagutzerakoan, errealitate sentigarriaren ezagutza onartzen zuen, baina zalantzan jarri

zentzumenen bidez hori ezagutzea, hauek engainatu dezaketelako gizakia; horregatik garrantzia eta egia, Platoni jarraiki, mundu adigarrian kokatu zituen.

Ezagutzaren abiapuntua norbere buruan kokatzen zuen, hori pentsatze hutsak bere existentzia baieztatzen zuelako, eta arrazoiaren bidez lortzen da. Baina egia gorena hala ere gizakia baina gorenagoa denean kokatzen du: Jainkoan. Filosofia platonikoaren kristautze bat egiten du, finean. Jarraian, oroimenaren garrantzia azpimarratzen du, gizaki orok duelako eta *aprioriko* ideia batzuekin harremantzen delako; hori Jainkoarekin identifikatuz, gizakiak Jainkoa beregan ere topatzen duelako horrela. Azken finean gizakiaren izate hau azaltzeko arimaren garrantzia azpimarratzen du, filosofo grekoen irakurketa kristautua planteatuz.

Platonen pentsamenduarekin jarraituz, Jainkoa izate eta ongi gisa definitzen ditu, eta gaizkia bezalako ideien, jatorria Jainkotik at kokatzen ditu horregatik. Horrela gaizkia on falta da, eta gizakiaren askatasunetik dator, ez Jainkotik.

Amaitzeko, Jainkoaren izatearekin jarraituz, hau betierekoa, aldaezina, denboraz gaindikoa, sortzailea, eta gorena dela baieztatzen du Agustinek, eta errealitate osoa du bere menpe, eta bera da gizakiari salbazioa ekar diezaioken bakarra. Horrela ideia kristau zaharrei jarraituz, Agustinek gizakia bi hiritako hiritarra dela baieztatzen du: lurreko hirikoa eta Jainkoaren hirikoa. Fedea eta Jainkoaren bideari jarraitzen dion gizakia izango da Jainkoaren hirira helduko dena. Azken finean, dena baitago Jainkoaren menpe.

Erreinu barbaroen ezarpenak pentsatu eta sentitzeko forma berriak eraman zituen, kultura klasikoaren beste ulerkera bat baitzuten. Lan hau *fundatzaileak* deiturikoek egin zituzten: Boecio, Isidoro Sevillakoa eta Beda Beneragarriak. Kultura klasikoa ikasi eta ulertzeko erraza izateko aurkeztu zuten.

Ikuspuntu filosofikotik Boecio da garrantzitsuena. Kultura klasikoan aditua zen, eta politikan izandako postuetatik lan kulturala egin zuen, hau zabaltzeko. Bere lanek Erdi Aro osoan zehar izan zuten garrantzia; logika eta fedearen inguruan egin zituen aportazioak batik bat. Filosofia bizitzaren inguruko ezagutza gisa aurkezten du, kontsolamendu gisa finean. Bere lanen oinarria Filosofo klasikoetan dago gehien bat, baina fedearen beharra azpimarratzen eta Jainkoa kokatzen du helburu. Ongi gorena Jainkoa da bere arabera, eta horra bideratu behar da gizakia, horregatik filosofiak ere Jainkoruntz bideratzen du gizakia.

## **2. Mundu islamikoko filosofia**

Islama erlijio bat baino gehiago da. Bere arabera Jainkoa da errealitate nagusia eta bakarra, Mahoma da bere profeta, eta bere printzipio doktrinalak Koranean daude bilduta. Erlijio bat baino gehiago da antolaketa sozial-politiko, ohitura multzo bat, kultura... barnebiltzen dituelako.

Islama Mahomak komunitateak sortzearekin batera sortu zen; eta Koraneko hitzak zituzten oinarritzat. Korana irakurri behar izate horrek errebelazioa eta interpretazioaren zientziak sortu

zituden. Honek berehala edukiaren inguruko eztabaidak ekarri eta erlijioa eta politikaren arteko harreman nabarmena suposatu zuen.

Testuinguruak alde batetik, testuinguru horrek erlijioaren zuzenbidea, gramatika eta historia diziplinen garapena eskatu zuen, teologiaren sorrerarekin batera. Bestetik, mundu grekoaren inguruko ezagutzan barnebildu zen, eragin filosofikoa jasoz. Ondorioz, pentsamendu islamikoaren baitan hiru korrante ezberdin zirelarik: anti-arrazionala, filosofia grekoa eta islamaren uztarketan ibili zirenak eta *Falsafa*.

Pentsamendu islamiarra oso aberasgarria izan zen egindako ekarpen guztiengatik.

*Falsafa* izan zen islamaren baitan sortutako korranteetako bat, mundu islamiarra eta pentsamendu grekoaren eraginez sortua. Pentsamendu islamiarrari loturik sortu zen arren, esan daiteke korrante independente bat zela, greziarren eragin nabarmenaren ondorioz.

Pentsamendu filosofikoa garatu zuten, pentsamendu grekoaren ezaugarriak baliatuz, baina beti ere erlijiosoa izanik eta horregatik islametik banatu ezin dena.

Hori dela eta planteatu zuten lehen auzietarikoa erlijioa eta filosofiaren arteko harremana izan zen. Egia eta arrazoia, eta Jainkoa eta Koraneko doktrinen arteko uztarketa egiten saiatu ziren.

Fededun soilek ez bezala, profetek ezagutza hori ez dute filosofiaren bidez eskuratzen, borondate jainkotiarraren bidez baizik. Horrela filosofia eta fedearen arteko ezberdintasunak argi geratzen direlarik: biek egia ezagutarazi nahi duten arren, lehenak arrazionalki egiten du eta bigarrenak errebelazio bidez.

Al-Fârâbî-k filosofiaren nagusitasun azpimarratzen zuen fedearekiko. Avicena-k ordea, auzia berdin planteatu ez arren fedeari eman zion nagusitasuna, arrazoiaren garrantzia ukatzen ez zuen arren. Bi pentsalari hauek, unibertsoa eternoa zela baieztatzen zuten, eta errealtatearen azalpen arrazionala egiteko saiakera egin zuten. Gizakiaren izatea ere morala, erlijioa eta komunitatearekin harremanetan azaldu zuten, arimaren garrantzia azpimarratuz.

Al-Andaluseko garaia izan zen honakoa. Garai honetan mundu musulmanak pentsamendu korrante eta herrialde ezberdinetako pentsamenduekin egon ziren harremanetan, beraien pentsamendua asko aberastuz, eta beraien pentsamendu filosofikoan nabarmen eraginez.

Logikari dagokionez, hasieran garrantzi handia izan zuen alorra izan zen, eta filosofia eta erlijioaren artean paper garrantzitsua izan zuen. Hemen kokatzen da Ibn al-Sid pentsalaria esate baterako.

Politikari dagokionez, Averroesen garrantzia da azpimarratzekoa. Bere helburua ongi goren topatzea zen, eta hau hirian topatu zitekeela defendatzen zuen. Zoriontasuna komunitateari loturik kokatzen zuen, eta horrela eraman zuen praktikara bere pentsamendua, hirian bertan.

Azkenik, aipatzekoak dira ere judutarrak, mundu kristau eta islamiarretik kanpo kokatzen direnak, eta beraien pentsamendua ere garatu zutenak aparte. Egia da, bi mundu hauekin harremanetan

garatu zela pentsamendu judutarra, baina beraien ibilbide propioa garatuz. Finean filosofia judutarra, herentzia hebreoa eta pentsamendu grekoaren herentzia jasotakoak dira, eta bertatik abiatuz egin dutenak beraien garapena.

### **3. IX. mendeko filosofia**

Karlomagnoaren inperioak (768-814) garrantzi historiko handia izan zuen, Islam eta bizantziotik aldendu eta unibertsalak izatera aspiratzen zuten bi gizarteak, kristaua eta Franco erregearena batu zituen. Gainera, aitasantutza inperio horretan babestu zen kristautasuna unibertsal izateko helburuarekin; horrela gizarte eta herri ezberdinek Inperioaren baitan batasun erlijiosoak zuten. Honek alde betetik, Berpizkunde Carolingioa deitu zitzaion berrikuntza kulturala behar zuen, fedea eta elizaren zabalpena ahalbidetu zuena; eta bestetik arlo administratiboa berritzeko idazketa bultzatzea. Eliza kultu bat izanik bere ondorio nagusienetariko bat. Filosofia ordea, eskola gutxitan landu zen diziplina izan zen.

Berpizkunde Carolignio horretan, figura garrantzitsu asko egon ziren, baina garrantzitsuena York-eko Alzuino izan zen. Ezagutza klasiko eta erlijioso handia zuen, arlo filosofikoan arte liberal eta etikaren arloetan ibili zen lanean.

Gara honetan, lau belaunaldi literario egon ziren, eta humanismoaren ideiak aportatu zizkion garaiko kulturari, eta garai Klasikoko testuak berreskuratzeko lana egin zen.

Carlomagnoaren *Renovatio*-aren ondorioak IX.mendearen amaierara arte iraun zuten, kultura eta ideien mugimendu zabala emanez. Arte liberalen (berezi dialektika) ezagutzan bultzada handia eman zen, filosofian ere teologia eta logikaren lanketa handia egonik; substantzia eta unibertsalen auzietan sakonduz, politikaren inguruko hausnarketak egonik, trinitatea eta eukaristiaren inguruko polemikak, eta garrantzi handiena hartuz predestinazio eta giza askatasunaren inguruko eztabaidak.

Godeskalko agustinen ideietan oinarrituz, predestinazio eta giza askatasunaren bateragarritasuna baieztatu zuen, pertsona onek salbazioa eta gaiztoek betirako kondenazioa izan luketelarik. Garaiko beste batzuek ordea Godeskalkoren aurka egin zuten.

Konflikto hau konpontze aldera Juan Eskoto Erigenarekin kontatu zen. Eskotok San Agustin berinterpretatu eta dialektikaren bidez erantzun bat ematen saiatzen da. Azaltzen du predestinazioa egia bada horren inguruan zientzia dialektiko bat garatu daitekeela hau ezagutzeko. Substantzia jainkotiar unitarioaren existentzia eta existitzen ez dena Jainkoak ezagutu ezin duelaren ideiatik abiatzen da, eta predestinazioa bikoitzaren ideia ukatzen du, unitarioaren ideian eta Jainkoaren izaera denboragabearen oinarrituz. Ondorioztatuz, destino bakarra dagoela eta ongia dela, Jainkoa bakarrik ongia delako, horregatik bekatua eta gaizkia gizatiarrak dira.

Eskoto eskritura sakratuetan oinarritzen zen, baina egia ezagutzea zuen helburu, arrazionalki.

Bekatua gizatiarra dela baieztatzen du, eta horrek daramala ezjakintasunera gizakia, baina eskritura

eta errealtatea aztertuz horretatik atera daiteke. Bi horiek dira egia ezagutzeko eremuak.

Fedea eta erlijioaren eremua naturaz gaindikotzat kokatzen du, eta sorkuntza ordea naturaren ordenari, beraz, filosofia eta arrazoiari dagokio. Eskotoren arabera bi eremu horien ezagutza eskritura sakratuetatik abiatu behar da, zentzu literal zein sakonagoa ulertuz, honek arrazoia behar duelarik, eta fedea ulertzeak, Jainkoa hobeto maitatzea dakar.

Arrazoiak interpretatu eta errebelatutakoa azaltzeko funtzioa hartzen du; eskrituren interpretazioa egiteko behar handia zegoen. Eskotoren arabera arrazoia eta autoritatearen artean ezin zen desadostasunik egon, biak Jainkotik baitatoz, baina argi dago arrazoia dela autoritate jainkotiarraren menpe egon behar dena, baina inolaz ere autoritate gizatiarraren menpe. Azken finean arrazoiak errebelazioan, fedean topatzen du egia, eta honi <<filosofia>> deritzo.

Eskotok onartzen du (Agustinen lanaren garapen gisa) erlijioa arau batzuek diktatuta dagoela, eta arau horien ezagutzan zentratu behar da filosofia, dialektikoki eginez, hau baita egia ezagutzeko bidea objektiboa eta unibertsala delako. Dialektika ezagutzeko bidea izateaz gain izateko bide bezala ulertzen du, eta lau pausutan banatzeko du prozesu dialektikoa: aniztasunean banakoa banatzea, aniztasuna banakoetan banatzea, ezkutatu dagoena ezagutzea eta konposatuak direnak sinple bihurtzea. Nolabait bi momentu izan litezke eta errealtatearekin identifikatzen dira.

De divisione naturae edo Periphyseon lanetan errealtatearen metafisika egiten da, guztiaren oinarrian Jainkoa kokatuz. Errealtatea ikertzerakoan dialektika, banaketa ezartzen du.

Natura unibertsalaren banaketa ikertzen da, hau da, errealtatea bere osotasunean. Horrela lehen banaketa agertzen delarik: dena eta ez denaren arteko banaketa. Ez dena azaltzeko Eskotok bost orden zehazten ditu: Jainkoa eta bere esentzia; orden gorenekoak diren heinean beheko ordenekoak ez direnak eta beheko ordenekoak diren heinean orden gorenekoak ez direnak; gure zentzuetatik eskapatzen dena: oraindik ez dena baina izango dena; sorkuntza eta usteltzeak menperatzen dituenak; eta azkenik, gizakia.

Naturaren banaketa eta ulerkera honek definitzen du Eskotoren lana: dena Jainkotik sortzen da eta itzultzen da Jainkora.

Jainkoa ikertzerakoan denaren printzipioa izanik, nola ezagutu planteatzen du. Baina Jainkoa ezagutu ezin denez, agnostizimo batera darama, eta bere izaeraren eta ezaugarrien inguruan zalantza ugari sortzen ditu. Finean, ondorioztatzen du Eskotok bere agnostizismotik abiatuta Jainkoa izatea baina haratago dagoela, esentzia baina haratago, horregatik infinitua eta superesentziala da. Denbora eta espazio batera erreduzi ezen denez, ezin da definitu gainontzekoa bezala, horregatik kategoria horiek gainditzeko beharra dago.

Horri jarraiki Jainkoaren ezagutzan sakontzen jarraitzen du Eskotok, honakoa ondorioztatuz: infinitua da, baina finitua barnebiltzen du; aldaezina da baina mugimendua barnebiltzen du; sortzailea da, eta bera da errealtatea eta natura sortu eta osatu duena.

Eskotoren aporiak eta pentsamendua ulertzeko bere diskurtso teologiko eta filosofikoaren arteko harremana eta banaketa eman behar da, bakoitzak bide ezberdina jorratzen duelako.

#### **4. XI. Mendeko filosofia**

X. mendea atzerapen kulturalako eta bizitza intelektual urriko mendea kontsideratu izan da, batik bat Cesare Baroniok hala kalifikatu zuenetik.

Carlomagnok lorturiko batasuna hautsiz joan izana da horren arrazoa, barne eta kanpo arrazoiengatik heman zen hau. Frantziako monarkiaren ezartzeak eta Otones dinastia saioaren zaharberitze inperialak ordea, kulturak pixkanaka aurreko mendeetan hasi zuen bideari ekin zion.

Hala ere, X. mendean zehar kulturak bizirik iraun zuen leku konkretu batzuetan. Erlijioari dagokionez, monakismoa berriro zen, hurrengo mendeetan eragina izango zuen erreforma batzuk ekarri. Honek ikasketak bultzatu zituen, eta aurretik aipaturiko inperioaren zaharberitzeak, arlo intelektualean bultzada bat suposatu zuen.

Aipatzekoa da Frantzian Fleury sur Loire monastegian egindako lana hezkuntzan, eta ondorioz sortutako *Quaestiones grammaticales* lana; eta Gerberto Aurillacekoa mendeko figura garrantzitsuentarikoa. Elizako gizona, obra profanoetan jakituna, arte liberaletan jakituna, eta dialektikaren bultzatzaile handia izan zen. Bere aportazioen artean aipatzekoa da maila logikoko arazo gramatikalari erantzun metafisikoa eman ziona, beharrezkoak eta betierekoak diren substantzien arteko ezberdintzea eginez; zientzian astronomiaren inguruko ezagutza handia zuen, eta politikako gizona ere izan zen.

XI. mendeko gertakizun guztiak San Anselmoren itzaletan gelditu dira. Baina mende honetan garrantzitsuak diren bestelakoak ere gertatu ziren: berrikuntza kulturalaren garapena, Gerberto eta bere dizipuluei esker.

Arte liberalek pixkanaka autonomia eskuratzen hasi ziren, baina dialektika izan zen hori eskuratzen lehena, Boecioren obren eskutik. Honek arrazoa eta fedearen arteko harremanean banaketa bat ekarri zuen, eta dialektika jakintza arrazional gisa nabarmentzen hasi zen, Eskriturak ere mehatxatzeraino. Arrazoiak garrantzia irabazten zuen heinean, teologoak honen aurka altxatu ziren, dialektika ukatuz.

Mende erdirako dagoeneko pentsalari batzuek arrazoa fedearen aurretik kokatzen zuten, arrazoa izanik gizakiaren kalitate nagusia eta dialektika honen artea. Teologoek antidialektikak arrazoiaren garrantzia onartu behar izan zuten, baina honi mugak ezartzen zizkieten naturaz gaindikoa ezagutu ezin zuelako.

Finean mende honetan dialektika (arrazoa) eta fedearen arteko eztabaidak markatu zuen, baina aurrerantzean dialektikak bere bidea egiteari jarraituko zion.



San Anselmok izan zuen mende honetan zer esan handia eta eragin nabarmena aurretik esan bezala. Bere lanaren arabera fedeak paper ezinbestekoa hartzen du, eta ondorioz Jainkoarengan pentsatzeko ahalmenak dakar beregan pentsatu nahi izate hori. Berak fedearen arrazoimenarekin harremanetan kokatzen du, alde batetik fedearen laguntzaile gisa eta bestetik honi mugak jarritz, eta elkar elikatzen dira.

Finean, Jainkoa egia absolutu eta goren gisa kokatzen du, eta hori horrela izanik, Jainkoaren existentzia edo ezaugarriak baieztatzean eta hauetan oinarritzean kontraesanetan erortzea ezinezkoa dela baieztatzen du, egia gorenaren inguruan kontraesanik ez baitago. Hau horrela izan dadin azken premisa bete behar da: Jainkoa existitzea. Horregatik Jainkoaren existentzia berak definitzen du Jainkoa Anselmoren arabera.

## **5. XII. Mendeko filosofia**

XI. mende erdialdetik aurrera mugimendu berri batek Mendebalde osoari eragingo zion. Kausa asko izan zituen: nekazaritza iraultza, merkataritzaren igoera, hirien handitzea... Ondorio izanik demografia hazi eta behar berriak sortzea.

Hiriak hazi eta ekonomia forma berriak egoteak, giza estruktura berriak sortu zituen, eragin intelektual eta artistikoa izanik. Hezkuntza zabaltzeko beharra ere sortu zen gizarte osoan, XII. mendean hiri garrantzitsuetan eskola berri ugari irekiz.

Finean XII. mendetik aurrera Europa sakonki aldatu zen ekonomiko, politiko, sozial eta kulturalki. Arlo intelektualetan ate asko irekiz, eta erlijioak zentralitate totala galduz. Ezagutza Klasikoak berriro hartu zuen garrantzia, eta ezagutza handitzea bilatzen zen.

Unibertsalitatea izan zen Erdi Aroko sorkuntza handia, XII. mendera arte agertu zen arren. *Universitas magistrorum et scholarium* eman zen arlo intelektual honen garapen nagusia. Kultura monastegietan gelditu zenez, hemendik bultzatu ziren eskola berriak.

Mundu erromatarrean esaterako, eskolak garrantzi handia izan zuen, eta hezkuntza osatua eskaintzen zen. Kristautasunak hezkuntza forma hau bere egin zuen, horregatik eskola erlijiosoak hasieran ez zeuden; baina gero hauek sortu ahala kultura klasikoarekiko banaketa eman zen. Eskola monakala, episkopala, katedralikoa... garatuz joan ziren elizaren beharretan hezteko.

XI-XII. mendeetan monasterioetara mugatu zen hori, jendearekiko urrunduz. Baina XII mendetik aurrera kulturaren zabaltzea eman zen, erreforma gregorianoaren ondorioz. Letrek eta zientziek garrantzia eskuratu zuten, erlijiotik aldenduz; eta nahi gabe gizarte profano edo laikoagoa bultzatu zen.

Lehen aipaturiko *Universitas magistrorum et scholarium* lehen unibertsitatea bihurtu zen, eta honek intelektualen sorrera ekarri zuen. Intelektual hauen garapenak "metodo eskolastikoa" deritzona ekarri zuten.

Erdi Aroko pentsamendua pentsamendu eskolastikoa izan zen. *Scholasticus* erabiltzen zen eskolako irakasleari erreferentzia egiteko. Eskolastika hasieran zientzia eta arrazoiketa metodoa izan zen. Gero terminoa zabaldu, eta Erdi Aroko filosofia erlijioso osoari egiten zion erreferentzia, dialektika tresna gisa baliatuz.

Metodo eskolastikoa ahozko irakaskuntza zen, *lectio*en lanketan eta irakurketan oinarritzen zen. Honek *quaestio*a sortu zuen, eta ondorioz *disputatio*a, iritzi ezberdinetatik sortuta. Eta guzti horren aurrean *magistri*ak autoritatea eskuratu zuen. Finean dialektikan zegoen oinarrituta, eta arrazoiketak paper ezinbestekoa jokatzen zuen.

XI. mendera arte Eskrituren lanketan eta zazpi arte liberaletara mugatzen zen hezkuntza; baina XII. menderako hau zabaldu zen, medikuntza, zientzia naturalak eta kosmologia gehituz esaterako.

Edukiaren inguruko banaketa ugari egin ziren: Thierry de Chartrekoaren *Eptateuchon*; Hugo San Viatorrekoaren *Didascalicon*, arte, zientzia eta tekniken entziklopedia eskainiz; Moises Sefardiren *Disciplina clericalis*, esaterako. Azken finean jakintza zabaldu eta ordenatu nahi zen, filosofia ere hemen kokatuz. Garai honetan filosofia arte liberalekin eta mekanikoekin identifikatzen zen.

Aldaketa honek eragin nabarmena izan zuen zientzian eta filosofian.

Eskoto izan zen latinera lehen itzulpenak egin zituena, baina testu erlijiosoak izan ziren. Horregatik, Platon eta Aristotelesen testuak ez ziren zabaldu. Hiru mende beranduago hasiko ziren zabaltzen testu zientifiko eta filosofiko arabiar eta grekoak.

VIII. mendean hasi zen mundu kristau latino eta arabiarren arteko harremana, penintsulan batez ere mendek iraungo zituena, eta elkar eragin zuten. IX eta X. mendean harreman kultural hori formalizatu zen, batez ere al-Andalusen garatzen ari zen jakintza zientifikoa zela eta; baina XI. mende erdialdean harreman hori eten zen. Hala ere itzulpen mugimendua indartu zen grekotik zein arabiarretik latinera, jakin-min zientifiko, interes erlijioso eta kezka filosofikoek bultzatuta. Testuak itzultzeko behar hau, garai konkretu honetan sortu zen beharbada arrazoiaren garapena zela eta, zientzia eta ondorioz filosofiaren lanketa aurrera eramanez nahi zelako.

Itzuli ziren testuetako askok, arabiarrek kasu arrazoia goraiatu eta honen lanketa eskatzen zuten, fedea eta arrazoiaren arteko harremanean eragin nabarmena izanez. Arrazoiaren aldeko mugimendu honek ezagutzaren inguruan galderak sortu zituen, arrazoia lehen planoan jarritz. Honek Platon eta Aristotelesen lanketara bultzatu zuen, eta arima, adimena, arrazoia, izatearen... inguruan hasi behar izan zen hausnartzen. Filosofia berri bat hasi zen garatzen, hurrengo mendeetan bereziki jasoko zirelarik bere fruituak.

Latineko testu berriak XI. mende amaieran eta XII. mende hasieran agertu ziren. Testu zientifikoak ziren oro har, eta honek mundua eta honen gertakariak ulertzeko garaiko beharra adierazten du. Garai honetara arte, Jainkoari egozten zitzaion denaren kausalitatea eta azalpena, batez ere San Agustinen eta bere jarraitzaileen eskutik. Baina XII. mendetik aurrera hau aldatuko zen.

Ezagutza berrian azalpen berriak plazaratu zituen, eta honen ikerketa bultzatu zuen. Gainera, ezagutza handitzeak errealitatean eragiteko aukera ematen zion gizakiari, horrela gizakia naturaren parte balitz bezala ulertzen zen, eta natura kosmosaren parte, zerbait ordenatu eta harmoniko gisa; eta hau ulertzea zuten helburu.

Materia lehena eta elementuen planteamenduak, eta hauen estruktura matematikoak garrantzia hartu zuen, eta matematikaren beharrezkotasuna suposatu zuen natura ulertzeko garaian. Kausalitate fisikoa jarri zen lehen planoan, jainkotiarra ukatuz. Hala ere, lege deterministen arabera ukerria ekarri zuen, abiapuntu jainkotiarra ukatzen zen, baina giza askatasuna baita ere. Horregatik, determinismoa mugatzen saiatu ziren jainkoaren gorentasuna defendatzen zutenek. Baina gizakiaren duintasuna berreskuratuz joan zen, "humanismo" baten baitan eta aintzinako pentsalariak landu ahala, errealitatearekiko ezagutza handitu zen nabarmen.

Juan Salisburukoa izan zen humanismo horren adierazpen nagusia, arrazoia, hitzaren balioa eta gizakia aldarrikatuz.

Unibertsalen auzia garrantzitsua eta azpimarratzekoa izan zen garai honetan. Boecio bere garaian Filosofia klasikoan abiapuntua duen auzi honi irtenbidea ematen saiatu zen. Bere planteamendua izan zen errealitatea ezin zela soilik genero eta espezieetara mugatu, baina unibertsalek ezta ere, horregatik kontzeptu horiek norbere buruak sorturiko errealitateak zirela, eta norbere burura mugatzen direla.

Abelardok ordea defendatzen zuen, unibertsalak hitzei soilik dagozkien arren, ez direla soilik hitz batera mugatzen, errealitatearekin ere jartzen du harremanetan. Gilbertoren arabera aldiz, unibertsalak mundu sentikorreko gauza edo objektuen formak dira, baina gauza horiek eredu perfektu baten kopia ez perfektu gisa ulertuta.

Azkenik, aipatzekoa da garai honetan emandako beste sakoneko aldaketa bat: kontzientzia indibidualaren sorrera. Ni-a, norbanakoa, pertsona edo hiritarra berriro agertu zen garai honetan. Honen inguruan bi planteamendu ezberdin garatu ziren: lehena, arazo logiko gisa, eta bigarrena, Boeciok garatutako pertsona edo indibiduaren definiziotik abiatutakoa. Honek pertsonaren ukerria autonomoa ekarri zuen, eta hau kontzientziadun izate gisa ulertzea.

Horrek etika berri baten garapena suposatu zuen, norbera erdigunean jartzen hasiz. Honetan eragina izan zuen doktrina etiko paganoak, dogma kristauetan zeuden planteamenduak moral berria bihurtu baitzuten.

Hemen kokatu behar da Abelardo berriz ere, berak defendatzen baitzuen planteamendu etikoak gizakiarekin ekintzarekin zuen harreman zuzena, eta ezin dela soilik kanpoko gainontzeko elementuetara begiratu. Horrela, pertsonaren moralak lehen planoan jartzen du, subjektibismo deitu izan zaiona sortuz. Honek suposatu zuen bekatua bezalako kontzeptuak, hori egiten zuen pertsona (bekataria) eta bere asmoetan zentratzea, eta pertsonaren garrantzia azpimarratzea.

## **6. XIII. mendeko filosofia**

XII. mendean garapen kultural handia eman zen Europan, Carlomagnoaren garaian jarraiki, bi botere unibertsal nagusitzen zirelarik: espirituala eta lurrekoa. Unibertsaltasun horren baitan gizakia bere partikularitate eta lokaltasunean bizi zen, eta arlo intelektualean garai honetan izan zuten aurrerapen arabiarren berri.

Baina XIII. Mendean joera hauekin amaitu zen, Erdi Aroaren amaierari hasiera emanez. Mende honetan hiriak independenteki hasi ziren garatzen ekonomikoki, klase sozial indartsu berriak sortuz.

Hezkuntzan ere zabalpen handia ematen ari zen, hiriko intelektualaren papera existituz. Filosofia ere benetako eskoletan lantzen hasi zen, eta hirietako unibertsitateak arlo espezifikotan espezializatzen hasi ziren. Aurretik planteatutako debateak jarri ziren mahai gainean sakontasun handiagoaz landuz hauek. Hau guztia gertatzeko arrazoen artean dago, mundu greko (bereziki Aristoteles) eta arabiarreko pentsamenduak hasi zirela integratzen, mundu intelektuala asko garatuz eta unibertsitateetan eragin handia izanez. Honen aurrean mundu erlijiosoak hau gelditzeko aleginak egin zituen.

Mundu grekoarekin harremanetan jartzean, Aristotelesen obrak ere zabaldu ziren, garai horretako kultura platoniko-agustinianoaren aurrean. XII. mendean itzulpen lanak egin ziren Aristoteles, eta baita beste filosofo greko eta arabiarrena, XIII. menderako zabalpen handia izan zutelarik. Aristotelesen obraren zabalpenak arazo batzuk izan zituen arren, mende honetan garrantzi handia zuen dagoeneko.

Arrazionalismo eta naturalismo grekoak, Aristotelesen eskutik batik bat, elizarekiko kritikotasuna bideratu zuten, eliza honen kontra jarri zelarik, hauek debekatzera helderaino. Debeku hauen aurrean, Toulouseko unibertsitateak esaterako debekaturiko lanak lantzen jarraitu zuen 1217an, eta 1228an Gregorio IX.ak komisio bat deitu nahi zuen, asunto hori serio hartzeko, baina bete ez zenez, Aristotelesen liburuek zabaltzen jarraitu zuten. Hala ere, elizaren baitan ezberdintasunak ematen ziren, eta teologo batzuek ere filosofoa zituzten zuten, eta teologo batzuetan bere eragina nabarmena izan zen. Azkenean, 1255ean Parisko unibertsitateak Aristoteles onartu zuen bere programan, eta bere doktrina landu eta asimilatu zen hurrengo urteetan zehar.

Eskola frantziskanoko pertsona garrantzitsuenetarikoa San Buenaventura izan zen. Aristotelesen obrak landu zituen, garaiko korronteari jarraiki, eta gero Platonen lanak lantzen ere ibili zen. Aristotelesen lanaren jarraitzaile garrantzitsu izan zen, eta bere obrak eta pentsamenduaren zabalpenean ibili zen lanean.

Lan horretan zebilela bi nagusi izan zituela azpiarratu behar da: batetik, tradizio agustinar-platonikoa eta bere planteamendu guztia; eta bestetik, tradizio aristotelikotik eratorritako teologia. Lehenengoan, Alberto Magno kokatzen da, zientzia naturaletatik abiatuz, bi esparru

independente desberdintzen dituelarik: teologia errebelazioan oinarrituta eta egia filosofikoak arrazoiaren oinarrituta. Bigarrenean, Tomas Akinokoa dugu, bere dizipuluekin batera garatu zuena bigarren tradizio hori. Biak Aristotelesen pentsamenduaren garapen horren kokatu behar direlarik.

Tomas Akinokoarekin batez ere, rrazionalismoa eta arrazoiaren ulerkera autonomoak indar handia hartu zuen berriz ere, filosofiaren eskutik. Pentsamendu kristaua arrazionalismo eta naturalismo graziarrarekin nahasten hasi zen. Jainkoa kokatzen zuen zentral gisa, baina aurreko mendeetan garatutako pentsamendutik aldenduta arrazoiari aurretik baino garrantzia handiagoa emanez.

Egiara iristeok bi bide autonomo zeudela defendatzen zuen: arrazoiaren eta fedea. Hala ere fedeari emten zion garrantzi handiagoa eta gaitasun gehiago helburua lortze aldera, arrazoiak egia osoa ezagutzeko ezintasuna zuela uste zuelako.

Etikari dagokionez, gizakiari erantzukizun moralak egozten zion, ongi jardutea bere erantzukizun gisa kokatuz. Arrazoiarekin jartzen du harremanetan etika Tomas Akinokoak, gero arrazoi hori gizakiaren nahia izan behar delarik. Jainkoaren presentzia jakina da bere lanean, baina hortik abiatuta arrazoiaren beharrezkotasunak paper garrantzitsua jokatzeko du.

Azkenik, XIII. mende honetako pentsamenduaren garapenarekin jarraitzeko, Oxforden eginiko lanak aipatzekoak dira. Autore horien artean garrantzitsuenak Roberto Grosseteste dugu. Berak esperientziaren garrantzia azpimarratu zuen teoriak baieztatzeko, eta horri loturik teoriak baieztatzeko ere metodo deduktiboa kokatzen zuen ezinbesteko gisa.

## **6. Erdi Aroko filosofiaren gainbehera.**

Parisko gertakizunen ostean kokatu behar da hau. Gertakizun eta mugimendu iraultzaileen osteko, 1277ko kondenen ondoren.

Garai honetan Averroesen filosofia zen nagusi, eta zorientasuna eta intelektualismoaren arteko lotura zuzena egiten zen, kolektiboari garrantzi handiagoa emanik indibiduoari baino.

Hemen kokatzen da Juan Duns Eskoto. Pentsalaria aurkaritzan zeuden bi pentsamolde korronteren arteko sintesia egiten saiatu zen; lehena, Agustinen pentsamendutik abiatutako ideia neoplatoniko filosofikoei garrantzia ematen diena; eta bigarrena, Aristotelesen pentsamendua kristautzeko saiakera egin zutenena. Biei alderdi positiboak eta negatiboak ikusten zizkien, eta positiboetatik abiatuta pentsamendu hobe bat garatu nahi zuen.

Horretarako filosofia eta teologiaren arteko banaketa diziplinarra egin zuen. Baina finean bere helburuak Jainkoarekin zuen zerikusia, eta horregatik teologiari eman zion garrantzi handiagoa.

Garai honetan nominalismo korrontek garrantzia hartu zuen eta zabaltzen hasi zen inguru filosofikoetan. Honen baitan agertu zelarik Guillermo Ockhamekoa eta bere kritizismoa deitu izan zaiona.

Guillermo Ockhamekoak bere kritizismoaren eskutik esparru epistemologikoan subjektuari eta ezagutzeke dagoen objektuan enfokatu zuen garrantzia, ezagutza prozesuan egon daitezken bestelako bitartekoak alboratuz eta tradizio berri bat sortuz arlo honetan. Baina beti ere hemen Jainkoaren garrantzia azpimarratuz.

Bestalde, garai honetan logika zein zientziaren alorretan ere lan egin zen.

Logikari dagokionez, ekarpen original eta berriak ere egin ziren, obra klasikoetan oinarrituz.

Zientziari dagokionez, aristotelismoa gainditzeko pausuak ematen ari ziren garai honetan, eta alor zientifikoetan teologiatik kanpo lan egiten hasi ziren. Honen baitan bi eskola nagusi dira azpimarratzekoak: Parisko eskola eta Oxfordeko eskola. Eskola hauetatik ekarpen garrantzitsu eta berritzaile ugari egin zirelarik garai honetan.

Azkenik, Penintsula Iberikoan teologiak oraindik ere pentsamenduan erabateko garrantzia zuen, eta ez zen bestelako lekuetan eman zen apurketa eman (edo ez hain garrantzitsua). Autore garrantzitsuenen artean daude Pedro Alfonso, Gundisalvo, Pedro Gallego, besteak beste.

Mende hauetan zehar emandako bilakaera eta pentsamendu korronteez hurrengo mendeak eta garai berriak determinatuko zituen.

## BIBLIOGRAFIA:

Guerrero, Rafael Ramón. (1996). *Historia de la Filosofía Medieval*. Madrid: Akal